Gezurra dirudi baina
Hamaika urte pasa dira

Eman dugu orain artean
Hamaika buelta ta bira

Hamaika lan, eztabaida
Eta hamaika mobida

Ez dago hemen egoterik
Geldirik eta begira

Itzalen jokatzen duna
Aterarazi argira

Iskututakoa azalarazi
Sakonekoen harira

Jende langile jarri da
Konstruktibismoari tira

Motorra dialektikoa
Prozesu martxan ari da
Mugimendua nagusi
bizirik gauden einean

Malgutasuna behar da
kurbari egokitzean

gogoak bizi mantenduz
hemen diraugu lanean

teoria berbizituz
bizia teorizatzean

elkarren indarra degu
sostengu gure bidean

kolektibo izaera
daramagu barrenean

Harro ta pozik baikaude
gaur ere hemen biltzean

bejondaigula lagunak
ongi etorri Erasoenera

Errusia zaharran Lenin
Eta Jose Luis gutarra

Nola esnatu gintuzten
Ta nola jo deiadarra

Historian bi momentutan
Markatu zuten iparra

Hildoa markatu eta
pentsamenduen giltzarra

buruak askatutzeko
langile klasen indarra

higitaia ta mailua
askatasunan izarra

benetan dugula premia
ta sekulako beharra

ehun urte geroagoko
iraultza sobietarra

Kapitalaren garaian
nagusi indibidua

Salba dadila ahal duna
Kolektiboa galdua

Efektiboa izan da
Trajedunen eredua

Askatasun mozorroan
Erlijio kontsumoa

Iraultza piztu dezagun
piztuaz geure burua

Aktibo jarri gaitezen
Gure hazia ernetuaz

Pentsamendu kritikoa
gure arma sekretua

presente egiñaz hola
gaurko gure omendua











BertSoaK




Marca Izargain nº: 2.425.909/Ar-2017-30

**1.- Luis**
Parece mentira pero
han pasado 11 años

Hemos dado hasta ahora
un montón de vueltas y revueltas

Muchos trabajos, debates,
un montón de movidas

Aquí no se puede estar
quieto y mirando

Sacando a la luz
lo que se juega en lo oscuro

Haciendo aflorar lo escondido
al hilo de lo profundo

Gente trabajadora se ha puesto
a tirar del constructivismo

Con motor dialéctico
el proceso está en marcha

**3.- Luis**
En la vieja Rusia Lenin
Y Jose Luis de los nuestros

¡Cómo nos despertaron!
¡Cómo tocaron a llamada!

En dos momentos de la Historia
marcaron el norte

Marcaron línea
y clave de pensamiento

cabezas para liberar
la fuerza de la clase obrera

la hoz y el martillo
la estrella de la libertad

de verdad tenemos urgencia
y una gran necesidad

cien años después
de revolución soviética





**2.- Edurne**
Siempre en movimiento
mientras estamos vivxs

Se necesita flexibilidad
para adaptarse a las curvas

Manteniendo vivo el deseo
aquí seguimos trabajando

Reviviendo la teoría
teorizando la vida

Tenemos la fuerza común
que nos sostiene en el camino

El ser colectivo
lo llevamos dentro

Estamos felices y orgullosxs
de reunirnos aquí también hoy

Hurra por nosotrxs amigxs
bienvenidos a Erasoenea

**4.- Edurne**
En la era del capital
el individualismo generalizado

Sálvese quien pueda
el colectivo se pierde

Ha sido efectivo
el modelo de los trajeados

Disfrazado de libertad
el consumo como religión

Despertemos la revolución
despertándonos nosotrxs mismxs

Pongámonos activos
fecundando nuestra semilla

El pensamiento crítico
es nuestra arma secreta

Así haremos presente
al que hoy homenajeamos

BertSoaK




Marca Izargain nº: 2.425.909/Ar-2017-30





Josu
Zelaia

# BertSoaK



